

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1648

*33/2020 EBAZPENA, otsailaren 27koa, Gorlizko Ospitaleko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez María Cándida Blanco Iglesias andrea Zuzendaritzako idazkari izendatu den, izendapen askez, Osakidetzako Gorlizko Ospitaleko Gerentziako Zuzendaritzan.*

2/2020 Ebazpenaren bidez, Osakidetzako Gorlizko Ospitalean, Gerentziako Zuzendaritzan, Zuzendaritzako idazkari lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, María Cándida Blanco Iglesias andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Zuzendaritzako idazkari Osakidetzako Gorlizko Ospitaleko Gerentziako Zuzendaritzan.

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– María Cándida Blanco Iglesias andrea izendatzea Gerentziako Zuzendaritzako idazkari, Osakidetzako Gorlizko Ospitalean.

Bigarrena.– Izendapen honek 2020ko martxoaren 5etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Uribeko ESlari Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetzako. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gorliz, 2020ko otsailaren 27a.

Gorlizko Ospitaleko zuzendari gerentea,  
CARMEN RODRIGUEZ RODRIGUEZ.